

KOSTUEN EGITURA

Arrakasta lortzeko ibilbidean zehar, oztopoak ere izan ohi dira. Enpresa bat hastearen kasuan, oztopo hauei kostu deritze, beraz atal honetan gure arrakastara iristeko izango ditugun gastuak azalduko dizkizuegu.

Hasi baino lehen, hasierako inbertsioak definituko ditugu. Gure proiektua aurrera eramateko, lokaleko altzarien kostuak batu beharko ditugu. Eramango ditugun altzariak gutxi batzuk izango direnez, hauen prezioak ikusi eta hurrengoak hautatzea erabaki dugu: Mahai handi bat (500€), aulkiak (160x3=480€) eta bukatzeko armairu txiki bat gure txokoa ordenatua izan dadin (150€). Gainerako altzariak, kuxinak, lanparak... guk eramango ditugu etxetik. Horiez gain, portatilak eta gainerako gailu teknologikoak geureak erabiliko ditugu. Webguneari dagokionez, simplea eta erraza izatea nahi dugunez, gure weba amateur baten antzekoa izatea nahi dugu, hau da, gaiari buruz aurkituko duzun gune simple bat. Honen prezioak aztertu ondoren 300€koa hautatzea erabaki dugu.

HASIERAKO INBERTSIOA:

KONTZEPTUA	KOSTUA
Mahaia	500€
Aulkiak	480€
Armairua	150€
Webgunea	300€
GUZTIRA:	1.430€

Beraz, gure hasierako kostuak hauek izango liratezke. Hala ere, aurreko ataletan aipatu dugun moduan gutako bakoitzak diru kopuru bat jarriko genuke. Hasierako diru-sarrera honen bidez enpresaren hastapena errazagoa izatea ahalbidetuko genuke.

Hasierako kostuak adierazi ondoren, kostu finko eta aldakorrei helduko diegu. Kostu finkoak ekoizpenaren arabera aldatzen ez direnak dira, aldiz, kostu aldakorrak izenak azaltzen digun moduan, ekoiztutako unitate edo kopuruaren arabera aldatu egingo dira. Gure kostu finkoak eta aldakorrak taula batean txertatu ditugu bisualagoa izan dadin.

Hauek izango lirateke gure kostu finko eta aldakorrak.

KOSTU FINKOAK:

KONTZEPTUA	HILABETEKO KUOTA	URTEKO KUOTA
UGGASA	90€	90 x 12 = 1.080€
Soldatak (bideoan aterako diren 4 neska-mutilak)	100€ → 100 x 4 = 400€	400x12=4.800€
Soldatak (3, gureak)	1000€ → 1000x3 = 3.000€	3.000x12 = 36.000€
GUZTIRA	3490€	41.880€

KOSTU ALDAKORRA

KONTZEPTUA	HILABETEKO KUOTA	URTEKO KUOTA
Garraioa	8€ → 8 x 3 = 24€/bidaiako	24 x 12 = 288€/bidaiako
GUZTIRA	24€/bidaia	288€/bidaia

Guk gure soldatez gain eta enpresaren irabaziez gain, gurekin talde lanean arituko direnei ere diru apur bat emango diegu. Haien lana ekarpen handi bat da gure proiektuarentzat eta beraz, 100€ko soldata ematea erabaki dugu. Oso diru kopuru txikia dirudien arren, urtean 1200€ izabaziko lituzkete, eta nerabeak izanik, dirua kudeatzen ikasteko eta aurrezki batzuk izateko metodo paregabea dela uste dugu.

Hilean, 4 herri ezberdinetara joango garela kontuan hartuta 8 bidaia egingo genituzke bakoitzak beraz, gure kostu aldakorrak 192€koak izango liratezke. Hala ere, ez dugu hau zihurra dela esango, edozein unetan herri bat gehitu edo kendu deka egulako, agian oso lanpetua bagaude ezingo garelako aurreikusita genituen guztietara joan.

Hilabetean izango ditugun kostuen aurreikuspena egin ondoren esan dezakegu hauek 3.682€-koak izango direla gutxi-gorabehera eta urtekoak 44.184€-koak, hau aldatu egon daiteke egingo dugun bidaia kopuruaren arabera. Beraz,

Hau esanda, hauek dira gure proiektua gauzatzean izango genituzkeen gastuak.